



eskolarteko **Orientazio** probak'18 - GIPUZKOA

PARTE-HARTZE OINARRIAK

1- Eguna eta lekua: Otsailaren 18an Kristina Enean (Donostia).

2- Partaideak eta mailak: Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztiek har dezakete parte. Maila guztiak kadetetaraino, hau da, 16 urteak arte (barne).

3- Izen-ematea: probaren aurreko osteguna baino lehen internet bidez elkarte antolatzailean: GOT Gipuzkoako Orientazio Taldea. www.GOTorientazioa.org. 3 € partaideko. Izen-emateko orria betetzea derrigorrezkoa da. Ez bidali Federaziora.

- ✓ Izen-emateak honakoak jasotzeko eskubidea ematen du: mapa 1 partaideko, anoa-hornidura, diploma eta **Negua eXtreme Sportwear** markaren lepoko berokia.

4- Harrera: Harrera eta irteera lekua, honakoa da:

- ✓ Kristina Eneako parkea: Parkearen ohizko sarreraren ondoan, Mandas Dukearen pasealekutik.

Atera baino lehen partaide guztiek baieztatu beharko dute beren parte-hartzea harrera mahaian. Bertan jasoko dute partehartzaileek beharko duten matxarda edo pintza eta laguntzaileak ere erregistratuko dira.

5- Ordutegia: irteerak piskanaka emango dira, minutuero, goizeko 10:00ak eta 12:00ak bitartean. 14:00etan itxiko da ibilbidea. Helmugan diplomak banatuko dira.

6- Froga sistema eta helburuak: eskola kiroleko proban 2 ibilbideetako bat aukeratu ahal izango da.

- ✓ Ibilbide oria.
- ✓ Ibilbide laranja.

Edo bakarka edo taldean edo familian parte hartu ahal izango da. Mendian zehar kokatuko diren balizak bilatu beharko dituzte partaideek, nagusiki mapaz lagunduta eta iparorratzaz ere, edukiz gero. Antolatzaileek ibilbidean zehar jarritako ordenean bilatu beharko dira balizak.

- ✓ Helburuak: kirol orientazioa ezagutzea, praktikarekin ondo pasatzea eta mendiko balizak bilatzea.





GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

*Eskola Mendí * Montañismo Escolar*



7- Material gomendagarria: mendian ibiltzeko jantzi egokiak. Iparorratza eramatea gomendagarria da (baina, ez edukitzekotan, antolatzaileek maileguan utziko dituzte iparorratzak bukatu arte).

8- Sariak, opariak: partaide bakoitzak diploma eta **Negua eXtreme Sportwear** oparitutako lepoko beroki bana jasoko ditu.

9- Lehen sorospenak: sorospen zerbitzua Gipuzkoako DYArean ardurapean izango da.

10- Zaborra: parte-hartzaileek sortzen duten zaborra beraiek jaso beharko dute beren motxilan edo antolatzaileek jarritako zaborrontzietan.

11- Joan-etorria: berebil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasunezkoa, trafikozkoa, aparkalekukoa, CO² igorpenak, etab. Garraio kolektiboa erabili. **TALDEAN GOAZ!**

12- Ezustekoak: ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.

13- Argazkiak eta bideoa: jarduera publikoak izanik, argazkiak edo videoak irudiak hartuko dira. Irudiok seguraski argitaratuko dira bai prentsan bai Federazioaren webgunean eta bai elkarte antolatzailearenean.

14- Oharra: probetan izen-emateak antolakuntzako baldintzak onartzea dakar berarekin.

IZEN-EMATEKO BOLETINA:

Web honetan: www.GOTorientazioa.org

